



❖ BIGARREN ESKUKO AZOKA Gabonetako azoka berezia, bihar

Bigarren Eskuko Azoka berezia izango da bihar. Gabonak direla eta, astebete aurreratu dute. Produktu onak prezio onean erosteko aukera izango da Atsegindegin, 10:00etatik aurrera. Bertan, Sahararen aldeko postu bat ere jarriko da. ||

❖ ZINEA

'The town (Ciudad de ladrones)' pelikula ikusgai, gaur

Helduentzako zine emanaldia izango da gaur Biterin, 22:30-etan. *The town (Ciudad de ladrones)* izango da ikusgai. ||

❖ A A M

Kontzentrazioa gaur, Zinkoenean

Hernaniko Euskal Preso Politikoen eskubideak aldarrikatzeko kalera aterako dira gaur zenbait senide eta herritar, ostiralero bezala, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deituta. Kontzentrazioa izango da 20:00etan Zinkoeneako errotondan. Leloa: *Gaixo larriak eta kondena osoa bete dauten presoak etxera*. Herritarrei parte hartzeko deia luzatu diete. ||

❖ ITURRITXO

Jaiotza prestatzeko hitzordua, gaur

Iturritxo auzo elkarteak hitzordua jarri du gaur goizeko 11:00etan Latsunbeberri-Marieluts auzoko jaiotza prestatzeko, Atarrabiyo parkean. Auzoko haur, gazte eta helduei animatzeko dei egin diete. ||

❖ OHITURA ZAHARRAK

Baserritar arropak jantzeari buruzko hitzaldia gaur

Hitzaldia izango da gaur, 19:00etan Biterin: *Gure tradiziozko jantziak nola atondu*. Ohitura Zaharrak Abesbatzak antolatu du eta Ane Albisu Iker-folk-eko kideak emango du. ||

Egino etxea, Galarreta Jai-Alai, eta zabor bilketa 2010eko Urtekarian, besteak beste


Gaur aurkeztuko dute 2010eko Hernaniko Urtekaria. 18 artikulua edo erreportaje dakarzki aurten, Hernani eta hernaniarrei buruzkoak, beti bezala. Aurkezpena, 19:30etan, Udaletxeko Areto Nagusian.

URTEKARIA prest du aurten ere Hernaniko Udalak, eta gaur aurkeztuko du, arratsaldeko 19:30etan, Udaletxeko Areto Nagusian. Guztira 18 artikulua edo erreportaje ditu urtekariak, denak Hernaniri buruzkoak, edo hernaniarrei buruzkoak: historia, artea, natura, kirola, gaurkotasuna... Salgai izango da liburudendetan, 8 euroan.

Egino etxea, eta Galarreta Jai-Alai
Historiari buruzko artikulua

Pilar Azurmendiri
elkarrizketa ere badakarki
2010eko urtekariak,
Gipuzkoako Aldundiko
Ondarearen Zuzendariari.

asko dakarzki aurtengo urtekariak. Batzuk aipatze aldera: Egino etxeari buruz ari da bat, Galarreta pelotalekuari buruzkoa ere bada, *Galarreta Jai-Alai, erremontatearen katedrala...*



Urtekariko azala.

**Pilar Azurmendiri
elkarrizketa**

Gaurkotasuna ere badu urtekariak. Pilar Azurmendiri elkarrizketa (Gipuzkoako Aldundiko Ondarearen Zuzendaria da, hain zuzen) eta Maialen Lujanbio bertso txapeldun izan zeneko kontuak, zabor bilketari buruzko erreportajea: *Zabor bilketa Hernanin azken 100 urtean*.

Badira erreportaje gehiago ere: Villa Ave Maria, Motolagunak, Hernaniko Kronikak 10 urte... ||

❖ SEGI-HIRU - LORE FESTA

Lore bat, bisitari bakoitzari

Portuko lore haztegia eta denda aurkeztuko zaie bihar hernaniar guztiei, 10:00etatik 14:00etara. Segi Hiru enpresan, gaitz mentala duten pertsonak ari dira lanean: 'Erribera-Hernani' negutegian.

PORTUTIK Karabelera bidean, lore haztegia eta denda jarri dute, *Erribera-Hernani* izenekoa. Ikusi nahi duenak, aukera ederra dauka gaur, Lore Festa antolatu baitute: azaltzen den guztiari lore bat emango zaio, lore guztiak bukatu arte: pazko-loreak, primulak, eta abar... Gure parkeetan ikusten diren lore klaseak, gutxi edo gehiago.

Produktzio lanean Segi Hiru enpresa ari da, gaitz mentala duten pertsonekin lanean aritzen dena, eta herritarren gana hurbildu nahi dute, ekitaldi honekin. Hala dio, Erramun Beltza, arduradunak: «Funtzio sozial bat egiten ari gara, eta nahi dugu, hernaniarrek jakitea zein garen, eta




Irekiera ofiziala, 'Erribera-Hernani' negutegiarena.

zertan aritzen garen».

Baldintza duinak denentzat, eta aholkularitza

Gaitz mentala duten pertsonak ari dira lanean Portuko negutegi berrian. Segi Hiru enpresak nahi du, egoera horretan dauden pertsonen lagundu, euren familiei ere bai, eta ordainez, baldintza txukun batzuk eskaini. «Lan egiten dutelako, beste langileek bezalaxe; eta ordaina merezi dute».

Aholkularitza lana ere egiten du Segi Hiru enpresak. Familiak azaltzen badira, egoera horretan norbait dutenak, bideratzen saiatzen dira Segi Hirutik: aholkuak eman, dudak argitu... ||



ZORIONAK !!

*Paco
eta
Micaela*

50. urteurrena

"Bodas de Oro"

VGALDETZO
Jatetxea

BAZKARIAK

ETA

AFARIAK

Ereñozu auzoa
20120 Hernani (Gipuzkoa)
Tel: 943 55 02 40



URREZKO EZTEIAK

Jose Alfonso Minguez
eta
María Garrido

50 URTE ELKARREKIN
1960/12/17 - 2010/12/17

ZORIONAK
FAMILIAREN PARTETIK

Ondo pasa egun berezi honetan!!

TELEFONAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
● **FARMAZIAK** ● **Egunez**: **Correa** Perkaitezgi 8 - 943 336022 ● **Gauez**: **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA
GAUR Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da eta egoera zertxobait aldatu egingo da. Eurria eta elurra egingo du 400-500 m ingurura. Min.2° / Max.6°.

BIHAR Egoera erabat ezberdina izango da. Hego-mendebaldeko haizea nagusituko da. Ateri egingo da eta ostare ederrak zabalduko dira. Min.1° / Max.9°.

❖ HERRI BARRUKO AUTOBUSA

Autobus berria Hernanin da

Herri barruko autobusak aldaketak izan ditu aurten, traiektoan, orduetan, eta baita autobusean bertan ere. Atzo iritsi zen autobus berria, 35 plazakoa.

AUTOBUS berriak 35 plaza ditu, elbarrituentzat ranpa, akzesio erraza eta umeen aulkiak jartzeko lekua. Horregatik ekarri da autobus berria, hain zuzen, aukera horiek zituena behar zelako. Atzo aurkeztu zieten herritarrei autobus berria, eta nobedadei buruz ere aritu ziren. Gidariak, Antton eta Imanol, dagoeneko ezagunak dituzte erabiltzaileek.



Herri barruko autobus berria, atzo, aurkezpenean.

Bi ibilbide, Etxeberri aldera eta Zikuñagara

Bi ibilbide ditu autobusak, lehen bezala: Etxeberri aldera eta Zikuñagara. Etxeberri, Bestizan, Sagastialde, Marie-luts, Anbulategia... goizeko 07:50etan abiatzen da Etxeberriko lehenengo autobu-

sa, eta hori da Institutura igotzen dena ere (lehenengo bakarrik). Bigarren ibilbidea Zikuñaga aldera egiten du. Lehenengo autobusa Zikuñagatik abiatzen da 08:30etan.

Etxeberrin bide berria Etxeberri eta Bestizan auzoak lotzen dituen bide berria erabiltzen du orain autobusak, eta buelta hartzeko egiten zituen bi maniobrak saihestu ditu horrela. ||

❖ TXISTORRADA

Txistorra, taloak eta Erromeria bihar, San Joan Konpartsarekin

Urtero bezala, Santo Tomas Egunaren harira, txistorrada antolatu du San Joan Konpartsak. Bihar izango da Plaza Berrin, 11:00etatik aurrera. 18:30etatik aurrera berriz, Erromeria. ||

Txistorra-jatea Sorgintxulon, etzi

Sorgintxulon ere ospatuko dute Santo Tomas Eguna. Igandean izango da. Txistorra jateko aukera izango da 12:00etatik aurrera. Horrez gain, auzo elkarteko bazkideen artean saski bat eta ardo kaja bat zozketatuko dituzte. Zenbakia kuotaren ordainagirian azaltzen da. ||

❖ NABARRALDE

'Gipuzkoaren jatorria' DVDa aurkeztuko dute

Nabarraldeko antolatuta, Gipuzkoaren jatorria izeneko DVDa aurkeztuko dute astelehenean Biterin, 19:30etan. DVD honetan bertan behera geratzen da orain arte Gipuzkoaren sorrerari buruz

esan dena: berezko estatusa izan duela. Gipuzkoa 1376an sortu zela azaltzen da lan honetan, Castillak konkistatu eta gero. Nabarraldeko Beñi Agirrek eta Angel Rekaldek aurkeztuko dute. ||

❖ KONTZERTUA Doinu Zaleko ikasleen kontzertua

Doinu Zale musika eskolako ikasleek kontzertua emango dute gaur, Imanol Kamio ereñotzuarak zuzenduta, 19:00etan Milagrosan. 8 urtetik 19 urte bitarteko 7 ikaslek joko dituzte, esku-soinua, pianoa eta trikitixa. ||

❖ HAURRENTZAKO ANTZERKIA 'Hiru bi zast, egizu jolas' antzerkia bihar

Haurrentzako antzerkia izango da bihar goizeko 11:00etan, Biterin. *Hiru bi zast, egizu jolas* antzezlana izango da ikusgai. Prezioa: 2,50 euro. ||

❖ GARIN Mus Txapelketa gaur

Garin tabernan Mus Txapelketa izango da gaur, 22:00etatik aurrera. Izena bertan eman behar da. ||

❖ BITERI Bisuteria ikastaroan izena emateko azken eguna, gaur

Bisuteria ikastaroa hasiko da Biterin, urtarrilaren 13an eta izena emateko azken eguna gaur da. Ikastaroa ostegunetan izango da 19:00etatik 20:30etara, euskeraz. Prezioa: 47 euro bertakoek eta 59 euro kanpokoek. ||

◆ JOCC ZIKUÑAKO AMA Haurren taldeak sortzeko bilera gaur

Alebin eta infantil mailan, txirrindulari taldea sortu nahi dute Jocc Zikuñako Ama taldean eta horretarako, bilera egingo dute gaur, 19:00etan Biterin. Interesa dute guztiek daukate bilerara azaltzea. ||

❖ GALDUTAKOAK Betaurreko graduatuak galdu dira Latsunbeberri

Joan den asteko ostegunean, betaurreko graduatuak galdu ziren Latsunbeberri inguruan. Oxydo markakoak dira (txikian jartzen du). Aurkituz gero deitu: 675 705 238. ||

❖ INMAKULADA - Gabonetako egitaraua

Antzerkia, musika, jaiotza, txistorrada eta erronda, asteleheneetik aurrera

URTERO bezala, Gabonak ospatzeko ekintza ugari prestatu dituzte Inmakulada ikastetxean. Astelehenean hasiko dira ospakizunekin eta horretarako, HH eta LHko jaialdia antolatu dute 15:30etan, Sandiusterrin. Bertan, antzerkia, dantza, musika eta abesbatzaren emanaldia izango dira eta aktuzio berezi moduan, Iosune Marin ikasle ohia joango da Irlaren aurrean abestia abes-tera. Ondoren, eskolako abesbatzak Parrokiko emanaldian hartuko du parte.

Asteartean, Santo Tomas Asteartean, abenduaren 21ean, Santo Tomas Eguna ospatuko dute eskolan bertan. 10:30etatik aurrera, txistorra jateko aukera izango dute nahi dutenek. Herritar guztiei luzatu diete gonbitea. Azoka txiki bat ere izango da.

Gabon erronda eta 'jaiotza biziduna' abenduaren 24an Abenduaren 24an, berriz, Goizeko 11:00etan errondan aterako dira herrian zehar eta ondoren, *jaiotza biziduna* egingo dute eskolan. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.


IV. URTEURRENA
Jesusa Aranburu Etxenike
2006ko abenduaren 18an hil zen, 89 urterekin

-Goian Bego-

Jesusa gure artean joan zela urtea bete den honetan, senitartekook orogarri meza eskaini nahi diogu eta bertara gonbidatzen zaituztegu ezagutu zenuten guztiak. Aldez aurretik, eskerririk asko.

Urteurrenoko meza, **BIHAR, LARUNBATA, arratsaldeko 19:00etan**, Hernaniko SAN JOAN BATAIATZAILA parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2010eko abenduaren 17an



❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Pisu bila nabil alokairuan, Hernanin. 2 logela eta berogailua (ingenieroa: solbentzia eta seriotasuna). Deitu: 600 609 754.

Garaje itxia alokagai, Zinkoenean. Deitu 677 513 257

Kapritxozko etxea salgai Santa Barbara auzoan. 3 logela, 3 komun, saloi handia, sukalde. Behean soziedadeara eta ganbarra logela bihurtuta, komunarekin. Garajea (3 kotxe).Prezio negoziagarria eta erreztasunak ordainketan. Deitu: 629 682 827.

Audi TT FSI salgai (2000cc, 200zaldi, 2007urtekoa). Oso egoera onean, beti garajejan. 26.500€. Deitu: 658 058 330.

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Enara Goikoetxea. Terapia energetikoak, Kristaloterapia, Flores de Bach, Masaje metamorfikoa, Reikia, Tarot terapeutikoa. Tel.: 943-332894 - 649-700762. (Agustindarren plaza 4)

YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA. Fotodepilazio berria, prezio bereziak eta pertsonalizatuak. "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. Atzietza 2, behe. Tel. 943 55 32 78.

Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalean garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach, hipnosia... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

18an babesa eman!

Abenduak 18
GIZA KATE
ERRALDOIA

Hernaniko kaleetan
13:00etan Plaza Berrin

orain!
Legalizazioa

Gora ezker abertzalea!